

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuaren hasieran, oso enpresa txikia garenez, bazkide nagusiak Mikel Ugarte Plazaola, Iker Igartua eta Iker Jiménez izango dira, hau da, gu (enpresaren fundatzaileak). Beraz, hori guztia kontuan hartuta, hasiera batean, ez gara hornitzen gaituzten kanpoko enpresez arduratuko. Horretaz gain, aurkeztutako produktua garatzeko, Mondragon Unibertsitatearen laguntza izan dugu. Izan ere, unibertsitateak, produktua inprimatzeko beraien 3D inprimagailua erabiltzeko aukera eman zigun. Gainera, enpresaren lehen urteetan zehar ere, “Mondragon Unibertsitatearen” laguntza izango dugu batez ere, 3D inprimagailuaren alorrean. Hori guztia dela eta, neurri batean, unibertsitatearekin erabateko elkarlana egingo genuen gure enpresa garatzeko asmotan.

Etorkizunera begira eta, denborarekin, enpresa handituz doan heinean, taldea handitzen eta garatzen joango da, publizitatea, marketing-a, web-gunea garatzeko asmoarekin. Horren ondorioz, enpresan bertan egin beharreko lana handitu egingo zenez, lan hori osatzeko bazkide kopurua eta handitu egin beharko litzateke. Hori dela eta, enpresaren bazkideak gero eta gehiago izango dira, aipatu bezala, enpresak garrantzia handiagoa lortzen duen bitartean.

Hornitzaile horiek, zalantzarik gabe, etorkizunera begira, enpresa handitzen lagunduko duten baliabide asko eskainiko dizkigute ekonomiaren alorrean gorakada bat eskaintzeaz gain. Esaterako, produkzioa handituko lukete, web-gunea erakargarriagoa izatea lortuko genukeen, publizitate gehiago izango genukeen eta, horrekin batera, bazkide gehiago erakarriko genukeen, etab. Gainera, esan bezala, hornitzaile horiek guztiek, ekonomian gorakada nabarmen bat sortuko lukete.